



Haur eta Gazte Literatura

Zapatagorri
Pello Añorga
Irudiak: Jokin Mitxelena.
Denonartean, 2013

Bi hanka ditu otsoak

PELLO AÑORGA ETA JOKIN MITXELENAREN azken lan honek Perraulten ipuin ezagun baten oihartzuna du hasieratik: “Herri menditsu batean, bizi omen zen neskatxa bat ama, aita eta amonarekin. Eta beti ibiltzen zenez zapata gorri batzuk jantzita, eta beti hizketan zapata gorri haiekin, denek deitzen zioten ZAPATAGORRI”. Norbaitek ez badu hasiera honetan ipuin ezaguna harrapatu, nahikoa du hurrengo orrira pasatzea eta bertan: “Eta kontua da, OTSO BELDURGARRI bat ere bizi zela herri menditsu hartan” irakurtzea eta berehala etorriko zaio, etorriko zaigu, burura Txanogorritxu, gorria, otsoa, neskatoa... Jakina, Añorgak eta Mitxelenak beste bertsio berri bat eskaintzen digute, ezberdina, lau hankatako otso hori bi hankadun bilakatuta, Txanogorritxu inuzentea egungo neskato biziak ordezkatuta.

Narrazioan nabaria da idazleak ipuinak kontatzean erabili ohi duen erritmoa, hitzekin nola jolasten duen eta letra larrien erabilerraren bidez non jartzen duen indarra. Testu horren ondoan, gainera, irudiak ditugu; kolorearen erabilera egokiaren bidez irudi koloretuetatik, paisaia beltzetara edo basoko paraje gorri eta beldurgarrietara eramaten gaituzte Jokin Mitxelenaren irudiek; baita etxeko gozotasunera ere.

Zapatagorri basoan barneratzen da, eta ipuin ezagunean bezala entretenitu eta galdu; ondoren, basoan, otsoak harrapatu du: “Otso beldurgarriak atzaparrak luzatu eta harrapatu egin zuen. A ze animalia zen otso beldurgarria! A ze basatia! A ze hortzaundia!”; neskatoak, baina, aurre egingo dio otsoari eta ondoren ihesiari ekin.

Ipuinak amaiera zorionsua du, Grimm anaien bertsioan bezala, eta ipuin klasiko askotan gertatzen den moduan ikaskizun batekin, aurretik azaldua, era erdi ezkutuan... gure inguruko otsoen berri emanez: “Eta harrituta geratu ziren denak: zur eta lur. Izan ere, orduantxe konturatu ziren otso beldurgarri hura ez zela animalia, baizik GIZONA. Larrua erantzterakoan konturatu ziren. Alazango! Ez zen otsoa, baizik GIZONA omen zen: haur-lapurra! Haur-lapur galanta! Gaizkilea!”; eta alde horretatik Perraulten hasierako bertsiora, neskatoei gizonekin kontuz ibiltzeko adierazten zien hartara, are gehiago hurbilduz.

Zapatagorri hau Txanogorritxu haren bertsio berri eta ezberdin bat dugu, harekin jolasten duena, harengana eramaten... eta irakurlearekin, gure espektatibekin, jolasten duen obra; Pello Añorgak eta Jokin Mitxelenak tradizioa eta gaur egungo mundua uztartuz lorturiko liburu guztiz interesgarria. ■

Xabier Etxaniz Erle



Ostiral
Santiago Freire
Irudiak: Dani Padrón.
Itzulpena:
Garbiñe Ugarte
Graziante-paraluzeta.
Sushi Books, 2013

Laguntasuna bizitzaren ardatza delako

SUSHI BOOKS euskal letren mundura heldu berri den argitaldaria *Ostiral* albuma jarri digu eskura. Robinson Crusoe uhar-te galdu hartan izan zuen adiskide mina dugu protagonista, Ostiral, sakrifizioetik libratutako indigena. “Baliteke niri buruz zerbait entzun izana, baita nire lagun Robinsoni buruz ere, baina beti haren ahotik izango zen. Orain nik kontatuko dizuet nola ezagutu nuen gizon zuria”. Hala, bigarren planokotzat jotakoari ahots nagusia emanik, lehen ezaugarri nagusia balioetsiko diogu liburuari: beste perspektibak kontuan hartzea, historiak gutxietsitakoari behar duen garrantzia ematea; lehen lerrora ekarriz, bestearen pare jartzea, berdintzea. Nolaketan ederrak ageri ditu, bestela ere, istorioan barrena, gehienak Ostiralek gorpuzturik: pazientzia, errespetua, ahula babesteko sena...

Baldintza latzetan elkartu diren bi gizonen arteko lagunatasun pitzaezina da ipuinaren mamia. Hunkitu egiten du Crusoearen azken lerroetako aitor-tzak: nahiago galduta baina laguna ondoan, zibilizazioko bakardade engainarian baino. Adiskidantza galtzeak eragingo lukeen nahigabea sentitu egiten da. ■

Garbine Ubeda Goikoetxea

